



Heziberri 2020: Euskara ardatz duen ikastetxearen hizkuntza proiektua



Uzt. 12 - Uzt. 14 2017

Kod. H12-17

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2017

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 12 - Uzt. 14 2017

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Gure Hezkuntza Sistemak **anbizio handiko hizkuntza-helburuak** ditu. Gertuko jendartean eta mundu zabalean era aktiboan parte hartzeko hizkuntza-komunikaziorako gaitasun egokia izango duten pertsonak hezi nahi ditugu: **elebidunak eta eleaniztunak**. Edozein eremutan (pertsonala, soziala, akademikoa eta laborala) eta egoeratan, bi hizkuntza ofizialetan erraztasunez jardungo dutenak, eta atzerriko hizkuntza batean (edo bitan), nahikotasunez.

Xede horiek lortze aldera, ezinbestekoa dugu **ikasleek gaitasun sakona, luzea eta zabala garatzea eskolatze-hizkuntzan, euskaran alegia**. Izan ere, egun euskara dugu ikasle gehien-gehienek eskolatze-hizkuntza (gurasoek horrela aukeratuta), eta horietako **askorentzat bigarren hizkuntza** ere bada; **eta hizkuntza gutxiagotua**, gainera (oraindik ez du lortu gaztelaniarekiko berdintasun-maila jendarte-egoeretan).

Gauzak horrela, eskolak **trataera didaktiko berezia eta egokitua** eman behar dio eskolatze-hizkuntzari. **Euskararen ikas-irakaskuntzaren prozesua ondo bideratu; bai** eskolaldiaren **hasierako urratsetan** (murgiltze-prozesua deituan), **baita ondorengo mailetan ere**. Eskolaldiko maila guztietan ikasleek euskarazko Hizkuntza Komunikazioa Gaitasuna garatzen jarraitzen dutela ziurtatu behar dugu, eta horri begira hizkuntzen arteko trataera integratua (bateratua eta dibertsifikatua) jorratu, batetik, eta, bestetik, arlo ez linguistikoetan edukiak eta hizkuntza-alderdiak batera landu. Gai hauetaz jardungo dugu ikastaroan.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2017-07-12

09:00 - 09:15	Dokumentazio banaketa
09:15 - 10:30	“Eskolaren ekarpena ikasleak euskalduntzeko eta eleaniztun egiteko lanean: egitekoak eta mugak, egungo erronkak” Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza - Ikerlaria eta Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria
10:30 - 11:45	“Euskara ardatz duen ikastetxearen Hizkuntza Proiektua: Hizkuntzen trataerarako erabaki pedagogiko nagusiak, Hizkuntzen Trataera Integratua eta Hizkuntzan Trataera Integrala” Itziar Elorza Alday Euskal Herriko Unibertsitatea - Irakasle eta ikerlaria
12:15 - 13:30	“Educación plurilingüe con lengua minorizada: quehaceres y retos de la escuela” Joaquim Dolz Mestre Genevako Unibertsitatea - Irakasle eta ikerlaria

2017-07-13

09:00 - 10:15	“Murgiltzen Programaren lehen urratsetan, eskolatze hizkuntzaren gaitasuna eraikitzen: irakaslearen esku hartzea gela barneko interakzioa bideratzen (edo)” Karmele Perez Lizarralde Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI - Irakasle eta ikerlaria Eneritz Garro Larrañaga Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI - Irakasle eta ikerlaria
10:15 - 11:30	“La enseñanza aprendizaje de las lenguas en contextos multilingües. El tratamiento integrado de las lenguas (unificado y diversificado)” Vicent Pascual Granell IEC (Institut d'Estudis Catalans) - Formatzaile eta ikerlaria
12:00 - 13:15	“Trabajando la competencia comunicativa en la lengua escolar desde las áreas lingüísticas y no lingüísticas: géneros textuales y secuencias didácticas” Joaquim Dolz Mestre Genevako Unibertsitatea - Irakasle eta ikerlaria Beñat Lascano Bigarren Hezkuntzan euskara irakasle eta Paue eta Aturrialdeko Herrien Unibertsitatea (UPPA), Euskal ikasketak, Baiona.

2017-07-14

09:00 - 10:15	“El tratamiento integral de la lengua. Tratamiento integrado de lengua y contenidos en la áreas no lingüísticas” Vicent Pascual Granell IEC (Institut d'Estudis Catalans) - Formatzaile eta ikerlaria
10:15 - 11:30	“‘Hizkuntzaren trataera integrala’: Gelako elkarrekintzaren garrantzia ezagutzaren eraikuntzan, arloan sakontzeko estrategiak” Agurtzane Azpeitia Eizaguirre Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI - Irakasle eta ikerlaria

12:00 - 13:15

“Hizkuntza Proiektuari begira zenbait iradokizun Laguntza Zerbitzuetatik;
Hizkuntzaren didaktikaren eta normalizazioaren ikuspegitik”

Iñaki Biain Salaberria G02 Berritzegunea, Irun. Hezkuntza Saila - Hizkuntza
Normalkuntza programako aholkularia

Maria Victoria Apraiz Jayo Berritzegune Nagusia. Hezkuntza Saila - Euskal Hizkuntza
eta Literatura arloko aholkularia

Zuzendaritza



Iñaki Biain Salaberria

Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, G02 Berritzeguneko HN aholkularia

Pedagogian Lizentziaduna. Eskola Orientatzaile gisa hasi nintzen lanean 1983an. 1989an Hezkuntzako Euskara Teknikari moduan hasi nintzen, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuan. Han euskarazko ikastereduen erazpenarekin eta garapenarekin, curriculumarekin, hizkuntza-proiektuarekin, hizkuntzaren didaktikarekin eta irakasleen prestakuntzarekin erlazionatutako jardueretan aritzeko aukera izan nuen. 2001etik hona HN aholkulari lanetan ari naiz Irungo Berritzegunean. Bertan ikastetxearen hizkuntza normalizazioarako proiektua eta hizkuntza proiektua, hizkuntzaren curriculum eta ikas-irakaskuntza izan dira lan eremurik ohikoenak 'Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuak' materiaren irakasle izan naiz Mondragon Unibertsitatearen EKOMU (Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan) masterrean. Azken ikasturte honetan 'Elkarhitz' eta Berbalapiko' proiektu pilotuetan parte hartzeko aukera izaten ari naiz.


Irakasleak



Idurre Alonso Amezua

Huhezi Koop.E

Berrikuntza eta esku-hartzea testuinguru kulturantz eta eleanitzetan taldeko kidea da Mondragon Unibertsitatean. Irakasle- ikerlari hau Euskal Filologia lizentziaduna da (EHU, 2000); 2005ean, HIZNET hizkuntza plangintza graduondoa burutu eta, 2009an, doktore tesia aurkeztu zuen EHUn. Egun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatean, Hizkuntza eta Literatura departamentuan dihardu irakasle ikasketetan eta BH masterrean. Ikerketa jarduerari lotua. Esteka honetan ikus daitezke argitaratu dituen artikulak, txostenak eta parte hartu dituen ikerketak. <https://www.mondragon.edu/es/grado-educacion-primaria/profesorado/-/profesor/idurre-alonso-amezua>



Maria Victoria Apraiz Jayo

Berritzegune Nagusia, Euskara arloko laguntzailea

Berritzegune Nagusiko hizkuntza ataleko aholkulari-kolaboratzailea - Euskal Filologian lizentziatua eta Euskara irakaslea 1984tik. - Euskara arloko aholkularia Bilboko Berritzegune Nagusian (2005ean hasita) - Hizkuntzen didaktikan eta, batez ere, Hizkuntzen Tratatua Bateratua programan aholkulari eta material egile Teresa Ruiz eta Marimar Perez lankideekin batera. Zenbait argitalpen: (lankidetzan) Trabajando la competencia en comunicación lingüística en el aula, Aula de innovación educativa, 188, 2010, 32-37. or. (lankidetzan) El tratamiento integrado de lenguas: Los proyectos de comunicación. Lengua castellana y literatura: investigación, innovación y buenas prácticas 2011, 151-174. or (Lankidetzan) La enseñanza integrada de las lenguas en la escuela plurilingüe. Revista Iberoamericana de educación, 119-137. or.



Agurtzane Azpeitia Eizaguirre

Berrikuntza eta esku-hartzea testuinguru kulturantz eta eleanitzetan taldeko kidea da Mondragon

Unibertsitatean. 1996an, Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatua, 2010ean, doktore tesia aurkeztu zuen. Egun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatean, Hizkuntza eta Literatura departamentuan egiten du lan irakasle-ikertzaile honek. Hizkuntzaren didaktika du irakasgai Haur eta Lehen hezkuntzako graduatan eta Practicum-etan. Esteka honetan ikus daitezke argitaratu dituen artikuluak, txostenak eta parte hartu dituen ikerketak. <https://www.mondragon.edu/eu/ikerketa-transferentzia/berrikuntza-hezkuntzan/ikerketa-transferentzia-taldeak/-/mu-inv-mapping/ikertzaile/agurtzane-azpeitia-eizaguirre>



Joaquim Dolz Mestre

FPSE Université de Genève

Hizkuntzaren didaktikako eta irakasleen prestakuntzako irakaslea Genevako Unibertsitatean. 1980tik hizkuntzaren garapena eta hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza ikertzen ditu interakzionismo soziodiskurtsiboaren ikuspegitik. Ikerketa horien artean ezagunenak dira ahozko eta idatzizko ekoizpenaren irakaskuntzari buruzko lanak, testu-generoak, sekuentzia didaktikoak, ikasteko zailtasunak eta irakaskuntza-jardueraren analisia. Grafe eta FORENDIF ikerketa-taldeetako kide da, eta, gaur egun, frantseseko didaktikako irakasleen prestakuntzari buruzko ikerketa berria zuzentzen du.



Itziar Elorza Alday

EHU



Eneritz Garro Larrañaga



Beñat Lascano



Vicent Pascual Granell



Karmele Perez Lizarralde

Berrikuntza eta esku-hartzea testuinguru kulturalan eta eleanitzetan taldeko ikerlaria da Mondragon Unibertsitatean. Irakasle ikerlari honek Deustuko Unibertsitatean, euskal Filologia ikasketak burutu (1989), Itzulpengintza masterra egin (EHU, 1999) eta doktore tesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitatean (2014). Egun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Hizkuntza eta Literatura gunean dihardu hizkuntzaren eta literaturaren didaktikan. Bere lan ibilbidean hainbat artikulu idatzi eta proiektu bideratu ditu Esteka honetan ikusgai: <https://www.mondragon.edu/eu/ikerketa-transferentzia/berrikuntza-hezkuntzan/ikerketa-transferentzia-taldeak/-/mu-inv-mapping/ikertzaile/karmele-perez-lizarralde>



Josune Zabala Alberdi

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2002), Hizkuntzen aditu titulua eskuratua (Mondragon Unibertsitatea, 2005) eta Euskal ikasketetan doktorego programa eta ikerketa gaitasuna burutua (EHU, 2008). Lan ibilbidean, euskara

eta bere irakaskuntzaren alorra landu du, batez ere: helduen euskalduntzean euskara irakasle eta trebatzaile (AEK eta udal euskaltegiak, 1999-2004); Euskara Biziberritzeko planetan aholkulari (Azpeitiko euskara patronatua, 2004-2005), eta Mondragon Unibertsitatean irakasle (HUHEZI fakultatea, 2004-2008 eta 2012-2014). Ikerketari dagokionez, HIJE taldeko (Hizkuntzaren jabetasuna eta erabilera) eta Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza saileko partaide ere bada, eta Soziolinguistika Klusterrean ahozkoitasunari buruzko ikerketa eta formazio ezberdinak gauzatu ditu. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendari lanetan dihardu egun Eusko Jaurlaritzan.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2017-03-01 ARTE	2017-05-31 ARTE	2017-07-12 ARTE
Pret_gara H3-18	0 EUR	-	-
OROKORRA	-	81,00 EUR	95,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	-	48,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	-	20,00 EUR	20,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	48,00 EUR	62,00 EUR
AEK	-	70,00 EUR	-
MATRIKULA BEREZIA	-	-	48,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa